

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



UDALA

Ikasturteko aurreneko Plenoa, bihar

Legegintzaldiko azkeneko ikasturtea izango dute orain hasi den hau Udal ordezkariak. Bihar izango dute aurreneko Plenoa; eguerdiko 13:30etan hasita izango da, udaletxeko areto nagusian. Bederatzi gai landuko dituzte, besteak beste, 2019ko Zerga Ordenantzak, soldata igoeraren proposamena, parteharitze ordenantzaren aldaketa... Galdera eta erreguntzat tartea ere izango da. ||

ASTIGARTE

Apuntatzeko aukera, larunbatean

Hainbat zita jarri zituen Astigarte elkarteak pintura eta marrazketa ikastaroetan izena emateko, eta larunbateko izango da azkenekoa. Kultur etxean egin beharko dute izenematea, eta urriaren 1ean hasiko dira eskolak. ||

ELIZA

Katekesian izena emateko, azken aukera

Gaur izango dute azkeneko aukera Astigarragako gaztetxoek, hau da, 1. 2. eta 3. mailakoek, katekesian izena emateko. Arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara egingo da izenematea, Andre Maria Zeruratzea parrokiako bulegoan. Material didaktikoa ere banatuko dute; prezioa: 20 euro. ||

ELKARBIZI TALDEA

Bosgarrena, urriaren 3an

ETAREN xantaia ekonomikoaren azpiko bizitza esperientziak izenburupean, Astigarragan eskainiko du hurrengo hitzaldi-ikastaroa Buruntzaldeako Elkarbizi taldeak. Urriaren 3an izango da 19:00etan, kultur etxean. Juanma Etxeberria GOIEKI Agentziaren zuzendaria zenak eta Migel Lazpiur CONFEBASK enpresariaren elkarteko lehendakari izan zenek eskainiko dute. Izena emateko: ganboiturri@gmail.com. ||

SAGARDOA

Sagarrak eta sagardoak hartuko dute herria, gaurtik hasita

Sagardo Txapelketaren finala egingo du gaur Kizkia Taldeak Gure Izarra elkartearekin. Bihar pintxopote bikoitza izango da: Euskal Sagardoarena eta Sagar Uzta Jaiaren bueltan urtero egiten dutena.

ASTIGARRAGAKO sektore garrantzitsuenetakoa da sagardoarena, eta dagoeneko hasiak dira sagar uzta berriko lanekin. Horrekin lotuta, sagarrez eta sagardoz beteko dute herria, egunotan eta txotx denboraldia hasi arte.

Honi guztiari hasiera emateko, hemeretzigarren Sagardo Txapelketaren finala egingo du gaur Kizkia Taldeak, eguerdiko 14:00etan hasita, Gure Izarra elkartearekin. Aurten, 20 sagardotegik hartu dute parte, eta horietako seik jokatuko dute gaurko finala.

'Egin zotz!' kanpainaren jarraipena, Astigarragan

Aurreko ostegunean eman zion hasiera Euskal Sagardoa jatorri-deiturak Egin zotz! kanpainari. Hernanin izan zen, eta bertan izan ziren, besteak beste, Zorione Etxezarrraga alkatea, baita herriko hainbat sagardogile ere.

Bihar egingo du aurreneko jarduerara Euskal Sagardoa jatorri-deiturak Astigarragan; Hernanin egin bezala, Euskal Pintxo Potea egingo dute, Mikel Garaizabal enologosumillerrak gidatuta, Euskal Sagardoarekin. Arratsaldeko 19:00etan hasita izango da, Joseba Barandiaran plazatik abiatuta.

Igandeko Sagar Uzta jaiaren ere izango dira, eta ondoren, abenduaren 14ra arte ekintzak burutuko dituzte ia etenik gabe. Horrez gain, kanpainak irauten duen bitartean, zozketak izango dira Euskal Sa-

gardo kontsumitzen dutenen artean, eta egunero, gainera, mokadu bat izango dute, opari.

Sagar Uzta jaiaren bueltan pintxo-potea, baita ere

Bat ez, bi pintxo-potea izango dira biharkoan, herrian. Bigarrena, Sagar Uzta jaiaren bueltan urtero egiten dutena. Izan ere, igandean ospatuko du Astigarragak, sagardotegien lanen hasiera festa. Urtero bezala, Foru Plazan izango da.

Horrekin batera, hainbat jarduerara egingo ditu Sagardotxeak, besteak beste, *Sagarrari zukua atera familian!* jarduerara larunbatean, eta Argazki Rallya, Sagar Uztako lehiaketa, aste osoan zehar. Denek izango dute zer gozatua! ||



Hernanin egin zuten 'Egin Zotz!' kanpainaren hasiera, aurreko ostegunean.

SAGARRA ETA SAGARDOA ASTIGARRAGAN

KIZKIA TALDEA

GAUR, irailak 26, Sagardo Txapelketaren finala eguerdiko 14:00etan hasita, Gure Izarra elkartearekin.

'EGIN ZOTZ!' KANPAINA

BIHAR, irailak 27, Euskal Pintxo Potea, Mikel Garaizabal enologosumillerrak gidatuta, Joseba Barandiaran plazan hasita.

IGANDEAN, irailak 30, Sagar Uzta festan.

Urriak 4, Euskal Pintxo Potea.

Urriak 26, Afari maridatua Pintxo sagardotegian, 20:30etan. Euskal Sagardoa eta Ipintzak jarritako afaria uztartuko dira. Erreserbak, Ipintzan: 688 811 724.

Azaroak 1, Euskal Pintxo Potea gidatua. 19:00etan, Norberto

Almandoz plazan hasita.

Azaroak 9, Afari maridatua Ikatzeta tabernan, 20:30etan. Euskal Sagardoa eta Ikatzak jarritako afaria uztartuko dira. Erreserbak, Ikatzan: 943 55 49 89.

Abenduak 6, Euskal Pintxo Potea.

Abenduak 10, Afari gidatua.

Abenduak 14, Kanpaina bukaerako festa.

XVIII. SAGAR UZTA JAIAN

BIHAR, irailak 27, Astigarragako tabernetan pintxo-potea sagarren eratorriekekin egindako pintxoekin. Arratsaldez.

ETZIDAMU, irailak 29, Goizean zehar, jarduerak familientzat, besteak beste, sagar motak ezagutzeko irteera Santiagomendin zehar. Aurrez izena eman beharko da:

943 550 575.

IGANDEAN, irailak 30, Sagarraren Jaia goizean Foru Plaza: muztioa egitea, txalaparta, kirrikoketa, sagar dantza, sagardo eta muztio dastaketa, etab. Eguerdian, herri bazkaria eta arratsaldean, pelota partiduak.

SAGARDO ETXEA

ETZIDAMU, irailak 29, eta urriak 6, 7, 13, 14, 20, 21, 27 eta 28, *Sagarrari zukua atera familian!*; larunbatetan 12:00etan eta 17:00etan, eta igandetan, 12:00etan. Izena eman: 943 550 575.

Urriak 19tik 31ra, *Sagar Uzta XI Argazki Rallyko argazkiak* erakusketa.

Azaroak 5etik 25era, *Sagardoa eta emakumea* erakusketa.

Irailaren 29ra arte

GARDEN LORALDI

Iparralde Bidea, s/g ASTIGARRAGA

Loraldi

GUREAK

ATZA

Nagusia 32, ASTIGARRAGA

943 55 49 89

ikatzatzierna@gmail.com

Latxe

Urumeako ur-titikan barrena

Bigarren alea kalean!

Jaso nahi izanez gero egin harpide!

latxe@kronika.eus

943 33 08 99

☎ **TAXIAK:** 622 222 343 | **UDALZAINGOA:** 943 335230 - 699 487 587 | **DYA:** 943 46 46 22 (Hernani) | **AUTOBUSAK:** Areizaga: 943 452708 | **ANBULATORIOA:** 943 33 56 44
 ✚ / **Egunez:** **IASTEAZKENA Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941** | **OSTEGUNA A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** | **OSTIRALA Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** | **LARUNBATA Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941** | **IGANDEA Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941** | **ASTELEHENA Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** | **ASTEARTEA Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941** / **Gauzez: Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941**

EGURALDIA

GAUR

Udako giroan izango da eguna gaur. Eguzkia nagusituko da, hego-ekialdeko haizea harro ibiliko da, eta ondorioz, tenperaturak gora egingo du. **Min.13° / Max.28°**

BIHAR

Bihar ere egun eguzkitsua izango da egun osoan. Dena den, goizean lainotuta egongo da. Hego-ekialdeko haizeak indarra galduko du. Temperatura, berdintsu. **Min.16° / Max.29°**

(euskalmet)

■ **FUTBOLA**

Beste hiru puntu, etxera

Denboraldiko bigarren garaipena izan zuten larunbatean Mundarroko mutilek etxean, Zarkumendegin, Vasconiaren kontra (2-0).

BIGARREN garaipena lortu berri du Mundarro Preferenteko taldeak, aurrenekoa, etxean. Oho-rezko erregional mailatik jatsi berri den Vasconiaren kontra irabazi zuen, 2-0.



Ederki jokatu zuten astigartarrek, larunbatean.

Intentsitate altuko partidua, hasieratik

Jaitsi berri den taldea izan zuten aurrean, bigarren; baze-kiten talde zaila zela, baina hasieratik partidua irabazteko konfidantza transmititu zuten moreek. Horregatik, intentsitate altuko partidua izan zen.

Nahiko paretsu hasi zuten norgehiagoka; 20. minutuan eman zen aldaketa. Orduan, Iñakiren erdiraketa on batek Gazteri aukera ederra eman zion aurreneko gola sartzeko; arratsaldeko lehenengo izan zen hori (1-0).

Hain zuzen, taldearen konfidantza zuzenean eragin zien golak, eta hurrengo minutuak oso onak izan ziren. Ondoren, berriz, ura edateko atsedena egin zuten, eta etenaldi horrek ez zion taldeari gehiegi lagundu. Izan ere, erritmoa hautsi zuten, eta Vasconiako jokalariek aprobetxatu egin zuten baloi gehiago eta aurkako zelaian presentzia gehiago izateko.

Bigarren zatian lortu zuen Iñakik bigarren gola sartzeko, bakarkako jokaldi baten ostean. Emaitzak lasaitasuna eman baino, gehiago mugiarazi zituen jokalariek; sartu berrien aportazioak oso positiboak izan ziren, eta gola sartzeko aukerarik ere, ez zitzaizkien falta izan. Vasconia ere golaren bila atera zen, baina ez zuten aukera garbirik izan. ■

■ **EH BILDU PRENTSA-OHARRA**

Batzarra bihar, arautegi berriaz

Bihar egingo dute batzar irekia herritarrekin; arratsaldeko 19:00etan izango da, udaletxean.

TABERNETAKO terrazen eta zaraten ordenantza aldatu nahi duela azaldu du Udal gobernuak, eta horren inguruko eztabaida zabaltzeko aukera herritarrei luzatu nahi diela dio EH Bilduk. Gai hori lantzeko, hain zuzen, batzar irekia deitu du biharko; arratsaldeko 19:00etan izango da, udaletxe areto nagusian.

da batzuetan ere, arazo-iturri izan daitezkeela».

Hortaz, EH Bilduk batzarra egingo du «egoeraren argazki errealago bat jaso eta ordenantzak guztien interesei ahalik eta hobekien» erantzutea.

Horregatik guztiatik, tabernariekin aurrerago beste hitzordu bat ere jarriko dute.

Nabarmendu dute EH Bilduk ez duela konpartitzen «EAJren estiloa: interesdunei (izan tabernari, bezero edo bizilagun) ezer galdetu gabe, euren ikuspuntu bakar eta itxia inposatuz». Hortaz, «Udal Gobernuan dagoen alderdiari dagokion arren, EH Bilduk, beste behin, herritarren iritzia jasotzeko lekukoa hartuko du». ■

«Egoeraren argazki errealago bat»

jasotzea, helburu

Arautegi berrian «herritarrak txertatzea beharrezkoa dela» uste du Astigarragako EH Bilduk, izan ere, «taberna eta jatetxeak eta euren terrazak herriko elkargune inportantea izan ohi dira, baina egia

■ **MUGIKORTASUN ASTEA**



Astelehenean eskaini zuten hitzaldia Elkartuko kideek, Herri Eskolan.

Bukaera lasaia, hitzaldiarekin

Europako Mugikortasun Astearekin egin zuten bat astigartarrek aurreko astean, Udalak bultzatuta. Tren berdean ibiltzeko aukera izan zuten, adinekoek gimnasia saioa egin zuten, pelikula bat ere eskaini zieten, baita kirol ginkana eta txokolatada ere. Astelehen honetan, herenegun, eman zioten bukaera aste bereziari Elkartuk, Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzaileak eskainitako hitzaldiarekin. ■

■ **KIROLAK ASTEBURUKO EMAITZAK**

FUTBOLA		
Mut. Erregional Preferentia	Mundarro-Vasconia	2-0
Mut. Erregionalak 1go maila	Sporting Herrera-Mundarro	1-2
Mut. Jubenilak Ohor. maila	Ekitza-Mundarro	1-3
Mut. Jubenilak 1go maila	Mundarro-Bilabona	3-0
Nsk. Kadeteak	Amara Berri-Mundarro	0-1
Mut. Kadeteak Ohor. maila	Mundarro-Beti Ona	1-2
Mut. Kadeteak 1go maila	Ostader-Mundarro	1-2
SASKIBALOIA		
Mut. Gipuzkoako 1go maila	Mundarro-Oiartzun	54-39
Mut. Juniorrak 1go maila	Zarauz-Mundarro	53-42

www.kimerafisioterapia.com

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

Hitzordua hartzeko orain ere whatsapp zerbitzua 638421060
9:15 - 18:00

Hernani: Antziola,16 -Tel./Fax 943 556 427 Astigarraga: Nabarra Oñatz, 9 -Tel./Fax 943 331 720 Donostia: Zabaleta, 61 -Tel./Fax 943 321 586